Si hubiese sido detectada alguna irregularidad o deficiencia en la documentación presentada se dispondrá de un plazo de diez (10) días hábiles para subsanarlo, a partir de la recepción del requerimiento. Asimismo, se dispondrá de un plazo de diez días hábiles para presentar la documentación e informes complementarios que en el transcurso del procedimiento el Ayuntamiento de Llodio solicitase. En ambos casos, si agotado dicho plazo, la solicitud no ha sido corregida o la documentación solicitada entregada, se le tendrá desistido de su petición, previa resolución administrativa al efecto.

Behin aurrekoa eginda, eta balioespen-irizpideak kontuan izanda, Balioespen Batzordeak aurkeztutako eskaeren inguruko dokumentu bat prestatuko du, bertan adierazita eskaera bakoitza onartu edo ukatu egin den, eta dirulaguntzen zenbatekoak kalkulatzeko formulak aplikatu ostean bakoitzari dagokion balioespena. Kalkulu hori Arloko pertsona langileek egingo dute.

Una vez lo anterior y teniendo en cuenta los criterios de valoración la Comisión de Valoración elaborará un documento relativo a las solicitudes presentadas indicando la aceptación o denegación de estas y las valoraciones correspondientes en aplicación de las fórmulas de cálculo de la cuantía de subvenciones, que será realizado por el personal del Área.

Tokiko Gobernu Batzarrak emango du ebazpena, alkate-udalburuak 2023ko ekainaren 27an emandako 1.152 Dekretuaren bidez jasotako eskuordetza erabilita. Espedientea eta Balioespen Batzordearen txostena aztertu ostean, alkate-udalburuak ebazpen-proposamena helaraziko dio Tokiko Gobernu Batzarrari, zeinetan hauek jasoko baitira:

La resolución será adoptada por la Junta de Gobierno Local en función de la delegación efectuada mediante Decreto de la Alcaldesa-Presidenta 1.152 del 27 de junio del 2023. A la vista del expediente y del informe de la Comisión de Valoración, la Alcaldesa-Presidenta formulará a la Junta de Gobierno Local la propuesta de resolución, la cual deberá contener:

- Baztertutako pertsona edota erakundeen zerrenda eta horiek baztertzeko arrazoiak.
- Dirulaguntza jasotzeko proposatutako eskatzaileen zerrenda.
- Dirulaguntzaren zenbateko espezifikoa eta xedea.
- Ebaluazioa eta hori egiteko aplikatu diren irizpideak..

- La relación de personas y/o entidades excluidas y motivación de dicha exclusión.
- La relación de solicitantes para los que se propone la concesión de la subvención
- La cuantía específica y finalidad de la subvención.
- Especificación de la evaluación y los criterios seguidos para efectuarla.

| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
| --- | --- | --- |
| MARIA ARANZAZU LILI SALAZAR | Idazkaria Nagusia / Secretaria General | 05/06/2026 10:17 |
| AINIZE GASTAKA MARTINEZ | Alkate-Udalburua / Alcaldesa-Presidenta | 05/06/2026 12:46 |

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/laudio/validacionDoc?entidad=LAUDIO
S0144708b00505180400 7ea24f06093au

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

Deialdi honetan zehaztutako irizpideak aplikatuta, Udalak beretzat gorde du aurkeztutako proiektu guztiei dirulaguntza ez emateko eskubidea, hala zenbateko osoan nola partzialean, edo, kasua denean, dagokion urteko deialdia hutsik deklaratzekoa.

En aplicación de los criterios marcados en esta convocatoria, el Ayuntamiento se reserva el derecho de no otorgar las subvenciones a la totalidad de los proyectos presentados, tanto en su cuantía total o como parcial, o, en su caso, declarar desierta la convocatoria anual correspondiente.

Ebazpena eman eta jakinarazpena egiteko epea hiru hilabetekoa izango dela aurreikusi da, eta, nolanahi ere, sei hilabetekoa izango da horretarako gehienezko epea. Dagokion deialdia argitaratzen den egunean hasiko da zenbatzen epe hori, betiere, Tokiko Gobernu Batzarrak ez badu epea eteteko esanbidezko ebazpena ematen, Balioespen Batzordeak modu arrazoituan eskatuta. Ebazpen horretan, Batzordeak txostena emateko benetako epea adierazi beharko da, baita espedientea ebazteko azken epe berria.

El plazo estimado de resolución y notificación es de tres meses, y el plazo máximo será de seis meses. El plazo se computará desde la publicación de la correspondiente convocatoria, salvo resolución expresa de la Junta de Gobierno Local de suspensión de plazo previa solicitud suficientemente motivada de la Comisión de Valoración. En dicha resolución se deberá especificar plazo cierto para la emisión del informe de la Comisión y nuevo plazo final de resolución del expediente.

Dirulaguntza emateko ebazpenarekin, administrazio-bidea amaituko da, eta, orduan, ebazpenaren aurkako errekurtsoa aurkezteko aukera egongo da, administrazio-prozeduraren inguruko arauei jarraikiz.

La resolución de la concesión de la subvención pondrá fin a la vía administrativa, existiendo posibilidad de recurso, según la normativa general sobre procedimiento administrativo.

**BEDERATZIGARRENA. Jakinarazpena eta ordaintzeko modua**

**NOVENO. Notificación y forma de pago**

39.- Bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena, APAPELen 41. eta 43. artikuluekin bat etorriz.

39.- La resolución de concesión o denegación de la subvención será notificada a las entidades solicitantes por medios electrónicos y de conformidad con los artículos 41 y 43 de la LPACAP.

Pertsona fisikoen kasuan, metodo bera erabiliko da edo eskaeran agertzen den helbidean igorriko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 40. artikuluari jarraikiz.

En el supuesto de personas físicas, se realizará por el mismo método o en el domicilio que figure en la solicitud, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

40.- Gehienezko epea agortutakoan ebazpenaren jakinarazpenik jaso ez bada, eskaera administrazio-isiltasunaren bidez ukatu zaiela ulertu beharko dute eskatzaileek.

40.- Si vence el plazo máximo y no se ha notificado resolución alguna, por silencio administrativo, los interesados han de entender desestimada su solicitud.

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/laudio/validacionDoc?entidad=LAUDIO
S0144708b00505180400 7ea24f06093au

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
**www.laudio.eus**
IFZ/NIF: P0103800I

41.- Dirulaguntzari uko eginez gero, berariaz eta arrazoituta aurkeztu beharko da, gehienez ere hamabost eguneko epean, diru-laguntza eman dela jakinarazi eta biharamunetik hasita. Horretarako emandako epean uko egiten ez badu, onuradunak isilbidez onartu duela ulertuko da.

41.- En caso de renuncia a la subvención, la misma debe ser presentada de forma expresa y motivada en el plazo máximo de quince días contados desde el día siguiente al de la notificación de concesión. En caso de no efectuarse tal renuncia en el plazo concedido al efecto, la subvención se entiende tácitamente aceptada por parte de la persona beneficiaria.

42.- Nolanahi ere, erakunde edo pertsona onuradunaren titulartasuneko banku-kontura transferentzia eginda ordainduko da. Dirulaguntza gisa dagokion zenbatekoaren % 100 dirulaguntza emateko ebazpena onartu ondoren ordainduko da, betiere, xedatutako baldintzak ez betetzeagatik erantzukizunak edota diru-itzulketak eskatzeko aukera gorabehera.

42.- En todo caso, la forma de pago será a través de transferencia bancaria a la cuenta de la que la entidad beneficiaria sea titular. El pago del 100% de la cantidad correspondiente como subvención se realizará tras la aprobación de la resolución de concesión de la subvención, sin perjuicio de las exigencias de responsabilidad o reintegro por incumplimiento, en su caso.

43.- Diru-laguntza ez da ordainduko baldin eta erakunde onuradunak udal honek emandako eta ordaindutako beste diru-laguntzaren baten justifikazioa emateko zain badago, horretarako epea amaitu ondoren, edo erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

43.- El abono de la subvención no se llevará a cabo si la entidad beneficiaria está pendiente de entregar la justificación de alguna otra subvención concedida y abonada por este ayuntamiento una vez terminado el plazo para ello o si la entidad no ha reintegrado alguna subvención anterior cuando así se le ha requerido.

**HAMARGARRENA. Dirulaguntza kontura ordaintzeko bermea**

Kontuan hartuta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, hau da, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Araudia onestekoaren 42. artikulua, zeinetan zehaztu egiten diren onuradunak bermea eratzeaz salbuesteko kasuak, ez zaie bermea eratzea eskatuko deialdi honetan araututako dirulaguntzen pertsona eta erakunde onuradunei.

**DÉCIMO. Garantía del pago de la subvención a cuenta**

Considerando lo dispuesto en el artículo 42 del Real Decreto 887/2006 de 21 de julio por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, del 17 de noviembre, General de Subvenciones, que establece los supuestos de exoneración de la constitución de garantía, no se exigirá la misma a las personas y entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas por la presente convocatoria.

**HAMAIKAGARRENA. Bateraezintasunak**

Dirulaguntza hauek beste edozein dirulaguntzarekin bateragarria izango da, alde batera utzita Laudioko Udalaren arlo honek berak edo beste arloek xede berdinarekin emandakoak, azken horiek ez baitira bateragarriak izango deialdi honetakoekin.

**UNDÉCIMO. Incompatibilidades**

La concesión de estas ayudas será compatible con la obtención de cualquier otro tipo de subvención, sin perjuicio de aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por la propia área del Ayuntamiento de Laudio / Llodio, siendo estas últimas incompatibles con las de la presente convocatoria.

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/laudio/validacionDoc?entidad=LAUDIO
S0144708b0050518040 07ea24f06093au



Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

Bateraezintasun-arau orokor horri ezikusi egin ahalko zaio delako jarduera Laudioko Udaleko beste arlo batek diruz lagundutakoa bada eta esanbidez hala adostu denean. Kasu horretan, behin beste udal-arloak emandako zenbatekoa ezagututa, dagokion deialdiaren bidez emandako zenbatekoa doitu ahalko da, behar beste murriztuta hasiera batean emandako dirulaguntzaren ehunekoa bere horretan gera dadin.

Esta regla general de incompatibilidad, si la actividad es subvencionada por otra área del Ayuntamiento de Llodio, se exceptuará en los supuestos en los que hubiese sido así acordado expresamente. En este supuesto, y una vez conocida la cantidad otorgada por otra área municipal, se podrá ajustar la subvención concedida a través de la convocatoria que corresponda, reduciéndose en la cuantía suficiente para mantener el porcentaje de ayuda inicialmente otorgado.

Beste finantzazio bide batzuei buruzko zinpeko adierazpen izenpetuan adierazia agertu beharko da laguntzak horiek zenbatekoak diren, eta, hala dagokionean, baita oraindik erabakitzeke dauden laguntzarik ote dagoen ere.

La declaración responsable de existencia o no de otras fuentes de financiación para el mismo fin deberá indicar la cuantía de la misma y, en su caso, de las solicitudes de ayudas pendientes de resolución.

Deialdian arautottako dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du inolaz ere izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa, ez bakarka, ezta beste dirulaguntzekin batera ere.

El importe de las subvenciones reguladas en la convocatoria, en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, supere el coste del programa subvencionado.

Baldin eta lortutako dirulaguntza ezberdinen guztirako zenbatekoa eskatutako matrikularen zenbatekoa baino handiagoa balitz, eman beharreko dirulaguntzaren soberakinari dagokion zenbatekoan murriztuko da.

Cuando el importe total de la suma de las diferentes subvenciones obtenidas sea superior al presupuesto que resulte aprobado en la actividad, la ayuda a conceder se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso.

Erakunde onuradunak beste erakunde edota enpresa publiko zein pribatuek diruz lagundutako programarako eman ahal izan dizkioten beste dirulaguntza guztien berri eman beharko dio Laudioko Udalari, dirulaguntza horiek emango zaizkiola jakin bezain laster.

La entidad beneficiaria deberá comunicar al Ayuntamiento de Llodio y en cuanto tenga conocimiento de ello, cualesquiera otras subvenciones y/o ayudas que le hayan sido concedidas por otras instituciones o empresas públicas o privadas para el desarrollo del programa subvencionado.

**HAMABIGARRENA. Kontrol-bermeak**

Organo emaileak egokitzat jotzen dituen administrazio-kontrolak eta ikuskapenak egin ahalko ditu aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasuna egiaztatzeko, baita dirulaguntza jasotzeko baldintzak bete egin direla

**DUODÉCIMO. Garantías de control**

El órgano concedente podrá realizar los controles administrativos e inspecciones que considere oportunos a fin de comprobar la veracidad de los datos consignados en la documentación presentada,

| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| MARIA ARANZAZU LILI SALAZAR | Idazkaria Nagusia / Secretaria General | 05/06/2026 10:17 |
| AINIZE GASTAKA MARTINEZ | Alkate-Udalburua / Alcaldesa-Presidenta | 05/06/2026 12:46 |

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/laudio/validacionDoc?entidad=LAUDIO
S0144708b0050518040007ea24f06093au

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

egiaztatzeko ere.

Pertsona edo erakunde onuradunak ikuskapenean laguntzeko betebeharra izango du, errekeritzen zaizkion datuak Administrazioaren esku jarrita, eta, hala dagokionean, jardueren kokaleku diren espazioetarako sarbidea emanda.

**HAMAHIRUGARRENA. Dirulaguntzen justifikazioa**

Dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla justifikatzeko, justifikazio-memoria ekonomikoa eta ez-ekonomikoa aurkeztu beharko dira, euskarri elektronikoan, egoitza elektronikoaren bidez pertsona juridikoen kasuan eta, pertsona fisikoen kasuan, udaletxeko beheko solairuan dagoen Herritarren Arretarako Zerbitzuaren bidez edo egoitza elektronikoaren bidez. Horiez gain, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoan jasotako moduetan ere aurkeztu ahalko dira justifikazioak.

A.- Dokumentazioa aurkezteko epeak. Bi (2) hilabeteetan aurkeztu beharko da justifikaziorako dokumentazioa, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik edo diru laguntza jasoko dela jakinarazten denetik aurrera zenbatuta.

Dokumentazioa aurkezteko epea luzatzea eskatu ahalko du erakunde onuradunak. Eskaera hori behar bezala arrazoitua egon beharko da, eta goiko paragrafoan adierazitako epea agortu aurretik aurkeztu beharko da. Laudioko Udalari dagokio arrazoiketa hori aztertzea eta dagokion ebazpena ematea, zeinetan esanbidez adierazi beharko baita aurkezteko epe berria.

Behin justifikazioa aurkezteko epea agortutakoan, erakundeak ez baditu dagozkion dokumentuak aurkeztu, luzapen aukerarik gabeko hamabost eguneko epea emango zaio errekeritutako agiri guztiak aurkeztu edota zuzentzeko, eta errekerimendu horretan adieraziko zaio justifikazioa

así como el cumplimiento de los requisitos para la percepción de la ayuda.

La persona o entidad beneficiaria tendrá la obligación de colaborar en dicha inspección, proporcionando los datos requeridos y facilitando, en su caso, el acceso a las dependencias donde se realizan las actividades.

**DECIMOTERCERO. Justificación de subvenciones**

La justificación del cumplimiento de las condiciones de la subvención deberá llevarse a cabo mediante la presentación de justificación económica y no económica, que se llevará a cabo en soporte electrónico, a través de la sede electrónica en el caso de personas jurídicas y a través de la sede electrónica o en el Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento (sito en la planta baja del Consistorio) en el caso de las personas físicas, o en las formas especificadas en Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

A.- Plazos de presentación de documentación. La documentación justificativa deberá presentarse en el plazo de dos (2) meses desde la finalización de la actividad subvencionada o de la fecha en que se le informa de la concesión de esta.

La entidad beneficiaria podrá solicitar una mora en el plazo de presentación de la documentación. Esta solicitud deberá ser suficientemente motivada y presentada con anterioridad a la finalización del plazo indicado en el párrafo precedente. Corresponderá al Ayuntamiento de Llodio la valoración de la motivación y la adopción de la resolución correspondiente en la que se determinará, expresamente, el nuevo plazo de presentación.

Si vencido el plazo de justificación la entidad no hubiese presentado los correspondientes documentos se le requerirá para que, en el plazo improrrogable de quince días naturales, sean aportados, comunicándole que la falta de presentación de la justificación en dicho plazo llevará consigo la

| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| MARIA ARANZAZU LILI SALAZAR | Idazkaria Nagusia / Secretaria General | 05/06/2026 10:17 |
| AINIZE GASTAKA MARTINEZ | Alkate-Udalburua / Alcaldesa-Presidenta | 05/06/2026 12:46 |

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
**www.laudio.eus**
IFZ/NIF: P0103800I

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/laudio/validacionDoc?entidad=LAUDIO
S0144708b0050518040007ea24f06093au

epe horretan aurkeztu ezean, dirulaguntza itzuli beharko duela eta Legearen arabera eska dakizkiokeen erantzukizunak eskatuko zaizkiola.

Aurkeztutako dokumentazioa ez badago osorik edo nabarmenki akastuna bada, errekerimendua helaraziko zaio, beharrezko dokumentazioa aurkeztu edo zuzendu dezan luzatzeko aukerarik gabeko hamar eguneko epean. Eskatutako dokumentazioa aurkeztu edota zuzentzen ez bada, dirulaguntza itzuli beharko da eta Legearen arabera eska daitezkeen gainerako erantzukizunak eskatuko dira.

**B.- Justifikazio-kontu sinplifikatua.**

44. Legearen 30. artikuluaren 2. idatzi-zatian xedatutakoa betetze aldera eta Dirulaguntzak arautzeko udal-ordenantzaren 22.2 artikuluarekin bat, emandako dirulaguntzen zenbatekoa 60.000 euroz beherakoa den kasuetan, dirulaguntzaren justifikaziorako balio juridiko nahikoa izango du idatzi-zati honetan arautako justifikazio-kontu sinplifikatuak. Horretarako, Laudioko Udalak onuradunen esku jarri duen justifikazio-kontuaren **E06.15** eredua aurkeztu beharko da, honako URL hau sakatuta deskargatu ostean:

https://labur.eus/SXUd0

Justifikazio-kontu sinplifikatuak informazio hau eduki beharko du:

a) Dirulaguntza emateko erabakian zehaztutako baldintzak bete direla baieztatzeko erantzukizunpeko adierazpena, gauzatutako jarduerak eta lortutako emaitzak zerrendatuta.

b) Programaren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekodun bakoitza identifikatuta, fakturazio dokumentua erantsita, eta fakturazio-dokumentuaren zenbatekoa, jaulkipen-data nahiz, hala dagokionean, ordaintzeko epea adierazita.

exigencia del reintegro y demás responsabilidades establecidas en la Ley.

Si la documentación aportada estuviese incompleta o fuese manifiestamente errónea, se le requerirá para que, en el plazo improrrogable de diez días hábiles, la documentación solicitada sea aportada o subsanada. La falta de presentación de la documentación solicitada llevará consigo la exigencia de reintegro y demás responsabilidades establecidas en la Ley.

**B.- Cuenta justificativa simplificada.**

44. A los efectos de lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 30 de la Ley y en virtud de lo previsto en el artículo 22.2 de la Ordenanza Municipal Reguladora de Subvenciones, para subvenciones otorgadas por importe inferior a 60.000 euros, tendrá carácter de documento con validez jurídica para la justificación de la subvención la cuenta justificativa simplificada regulada en este apartado. Para ello, se deberá presentar el modelo **E06.15** de cuenta justificativa facilitada por el Ayuntamiento de Llodio, que puede descargarse de la web municipal desde la siguiente URL:

https://labur.eus/SXUd0

Esta cuenta justificativa simplificada contendrá la siguiente información:

a) Declaración responsable en la que se declare el cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones del programa, con identificación de la persona acreedora y del documento de facturación, su importe y fecha de emisión.

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/laudio/validacionDoc?entidad=LAUDIO
S0144708b00505180400 7ea24f06093au

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

c) Dirulaguntza zenbatetsitako aurrekontu batean oinarrituta ematen bada, gertatutako desbideratzeak adierazi beharko dira.

d) Dirulaguntzaren justifikazio-gisa zerrendatutako edo aurkeztutako fakturak ordaindu izana egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpena.

e) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko balio izan duten beste diru-sarrera nahiz dirulaguntzen zehaztapena, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Dirulaguntza justifikatzeko inprimakiarekin batera, hauek ere aurkeztu beharko dira:

- **Proiektu edo programa osoaren azalpen-memoria xehatua.**
- **Jarduera ezagutzera emateko erabili diren kartel, esku-orri, programa eta antzeko elementu guztien ale bana eta proiektuaren argazkiak edo irudizko bestelako dokumentazioa.**

45. Gizarte Kohesiorako Arloko langileek laginketa bat egin ahalko dute dirulaguntzaren bat jaso duten onuradun eta erakundeen artean, zeinaren kariaz eskatuko baitzaie erakunde onuradunei gastuen jatorrizko egiaztagiriak aurkez ditzatela, barne hartuta ordainketen ziurtagiriak eta datak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 75.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Kasu horretan, egindako jarduerak egiaztatzeko beste modurik ez dagoenean baino ez dira jaso-agiriak onartuko baliozko egiaztagiri gisa. Nolanahi ere, jaso-agiria izenpetu duen pertsona ezingo da enpresari edo profesionala izan.

Faktura jaulkitzeko gaitasunik ez duten pertsona fisikoen ordainketa-egiaztagirien kasuan, diruz lagundutako jarduerarako lankidetzan aritzeak ekarri dizkien gastuen konpentsazio gisa, lankidetzaren izaera zehazki azaldu beharko da. Egiaztagiri horien bidez ezingo da inolaz ere 300,00 euroz gorako zenbatekorik justifikatu pertsona eta diruz

c) En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas.

d) Declaración responsable de haber procedido al pago de las facturas relacionadas o presentadas como justificación de la subvención.

e) Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

Junto al impreso de Justificación de la subvención, habrá que presentar:

- **Una memoria explicativa y detallada de la totalidad del proyecto o programa.**
- **Un ejemplar de cada cartel, folleto, programa, etc. por los cuales se haya dado a conocer la actividad; y fotografías o demás documentación gráfica del proyecto.**

45. El personal del Área de Cohesión Social podrá realizar un muestreo entre las entidades y beneficiarios de alguna subvención en cada ejercicio, exigiéndose a las entidades beneficiarias la presentación de los justificantes originales de los gastos, incluyendo acreditación del pago y la fecha del mismo, de acuerdo con lo establecido en el artículo 75.3 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

En este supuesto, únicamente se admitirán recibís cuando las actividades realizadas no se puedan acreditar por otro medio. En todo caso, la persona que firme el recibí no ha de tener la condición de empresario o profesional.

En los justificantes de pago a personas físicas que no tienen capacidad para emitir factura, en compensación de los gastos que le han causado la colaboración en el evento subvencionado, se deberá indicar el carácter de la colaboración realizada. Este tipo de justificantes, no podrán superar en ningún caso 300,00 euros por persona y actividad

| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
| --- | --- | --- |
| MARIA ARANZAZU LILI SALAZAR | Idazkaria Nagusia / Secretaria General | 05/06/2026 10:17 |
| AINIZE GASTAKA MARTINEZ | Alkate-Udalburua / Alcaldesa-Presidenta | 05/06/2026 12:46 |

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/laudio/validacionDoc?entidad=LAUDIO
S0144708b005051804007ea24f06093au

lagundutako jarduera bakoitzeko eta ezingo dira erabili pertsona fisikoek erakunde onuradunarentzat egindako lanaren ordainsarien kontzeptuen ordainketak egiteko erabili, baldin eta lan-legediaren arabera kontratu bidez formalizatutako lan harremana egon behar badu.

Salbuespen gisa, Tokiko Gobernu Batzarrak zenbatekoen muga hori gainditzea onartu ahalko du eskudiruzko sariak emateko lehiaketak antolatzen direnean. Datu hauek eduki beharko ditu jaso-agiriak :

• Pertsona jaulkitzailearen nahiz pertsona jasotzailearen izen-abizenak, IFZ-ak eta helbideak.
• Egindako eragiketaren edo zerbitzuaren azalpen zehatza eta guztirako prezioa.
• PFEZ-aren atxikipena (horren diru-sarrera dagokion zerga-agentzian egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da).
• Lekua, data eta pertsona edo erakunde jasotzailearen izenpea.

3. Edozein arrazoi dela-eta, diruz lagunduko den jardueraren antolatzaileak beharra ikusten badu dirulaguntza kudeatu edota justifikatzeko kudeaketa-zerbitzu profesional bat kontratatzeko, jardueraren gastuetan sartuko da kudeaketa-zerbitzu horri dagokion gastua. Kontzeptu horrek ezingo du gainditu emandako dirulaguntzaren zenbateko osoaren % 5.

**HAMALAUGARRENA. Dirulaguntza osoa galtzea edo partzialki itzuli beharra**

Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek beherago zerrendatu diren baldintzetakoren bat betetzen ez badute, dirulaguntza ematea proposatu zuen Balioespen Batzordeak txostena emango du, eta, ez-betetzeen larritasuna kontuan hartuta, eskumena duen organoak ebazpena emango du jasotako zenbatekoak osoki edo partzialki itzultzeko beharraz. Itzuli beharreko zenbatekoei dirulaguntza ordaindu

subvencionada y no podrán ser utilizados como medio de pago en concepto de remuneración por el trabajo realizado por personas físicas para la entidad beneficiaria en los supuestos en que, desde la perspectiva de la legislación laboral, tuviera que existir una relación laboral formalizada mediante contrato.

Excepcionalmente en el caso de la organización de concursos la Junta de Gobierno Local podrá permitir el incremento de esta cuantía para el pago de premios en metálico. El recibí deberá contener los siguientes datos:

• Nombre, apellidos, NIF y domicilio de la persona expedidora y destinataria.
• Descripción detallada de la operación o servicio realizado y su precio total.
• Retención del IRPF (se deberá acompañar ingreso de dicha retención en la Agencia Tributaria correspondiente).
• Lugar, fecha y firma de la persona o entidad receptora.

3. Si por cualquier circunstancia el grupo organizador del evento a subvencionar se viese en la necesidad de contratar algún servicio de gestión profesional para realizar los trámites necesarios para solicitar y/o justificar la subvención, el gasto correspondiente a dicho servicio se podrá incorporar a los gastos de la actividad. Este concepto no podrá superar el 5 por ciento del importe total de la subvención otorgada.

**DECIMOCUARTO. Pérdida total o reintegro parcial de la subvención**

En el supuesto de que las entidades beneficiarias de las subvenciones incumplieran cualquiera de las condiciones que más abajo se detallan, previo informe de la Comisión de Valoración que propuso la subvención, el órgano competente adoptará resolución, en función de la gravedad de los incumplimientos, sobre obligación de reintegrar la totalidad o parte de las cantidades percibidas, más el

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/laudio/validacionDoc?entidad=LAUDIO
S0144708b0050518040007ea24f06093au

zen uneaz geroztiko berandutze-interesak gehituko zaizkie.

Honako hauek izango dira kontuan hartuko diren ez-betetzeak:

- Ez betetzea dirulaguntza emateko oinarri izan zen jardueraren helburu osoa edo zati bat.

- Aurkeztutako eskaeran edota dokumentazioan datuak faltsutu izana.
- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo justifikazioa nahikoa ez izatea.
- Dirulaguntzaren zenbatekoak onuradunak gauzatu beharreko jardueraren kostua gainditzea, dirulaguntzaren zenbatekoa bakarrik nahiz beste laguntza publiko edo pribatuekin batera hartuta.
- Ez jakinaraztea Udalari ahalik eta lasterren beste dirulaguntza publiko edo pribatuak jaso izana, Udalak dagokion likidazioa dagoeneko onartua eduki arren.

- Eta, oro har, deialdi honetan nahiz Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzan xedatutako edozein betebehar ez betetzea, hala pertsona nahiz erakunde onuradunei dagokienez, nola likidazioetan aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez.

Balioespen Batzordeak dirulaguntzak partzialki itzultzea proposatuko du jardueraren gastuek behin betiko likidazioaren zenbatekoa jardueraren gastuen hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan denean eta erakunde edo pertsona onuradunak berrikuspena eskatu ez duenean. Itzuli beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, Balioespen Batzordeak proportzionaltasun irizpidea aplikatuko dio aurkeztutako likidazioari.

Diru-itzultzeko gainerako arrazoiei dagokienez, 38/2003 Legearen, hau da, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikulua aplikatuko da.

**HAMABOSGARRENA. Zehapenak**

interés de demora desde el momento del pago de la subvención.

A tal efecto, se considerarán los siguientes incumplimientos:

- El incumplimiento total o parcial del objetivo de la actividad que fundamentó la concesión de la subvención.
- El falseamiento de datos formulados en la solicitud o en la documentación aportada.
- El incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente.
- Que el importe de la subvención, aisladamente o en concurrencia con otras ayudas públicas o privadas, supere el coste de la actividad subvencionada a desarrollar por la persona o entidad beneficiaria.
- Que no se comunique a la mayor brevedad posible al Ayuntamiento de Llodio la concesión de otras subvenciones públicas o privadas, aunque ya se haya aprobado por el Ayuntamiento de Llodio la liquidación oportuna.
- Y, en general, el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en la presente convocatoria y en la Ordenanza Municipal reguladora de Subvenciones, tanto para las personas o entidades beneficiarias como para la documentación a presentar en las liquidaciones.

La Comisión de Valoración propondrá el reintegro parcial de las subvenciones cuando la liquidación definitiva de gastos de la actividad haya sido menor al presupuesto inicial de gastos de la actividad y la persona o entidad beneficiaria no haya pedido su revisión anterior. Para calcular el reintegro, la Comisión de Valoración aplicará a la liquidación presentada el criterio de proporcionalidad.

Para el resto de las causas de reintegro, se estará a lo dispuesto en el artículo 37 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

**DECIMOQUINTO. Sanciones**

| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
| --- | --- | --- |
| MARIA ARANZAZU LILI SALAZAR | Idazkaria Nagusia / Secretaria General | 05/06/2026 10:17 |
| AINIZE GASTAKA MARTINEZ | Alkate-Udalburua / Alcaldesa-Presidenta | 05/06/2026 12:46 |

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/laudio/validacionDoc?entidad=LAUDIO
S0144708b005051804007ea24f06093au

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

Balioespen Batzordeak erakunde edota pertsona onuradunari entzunaldia eman ostean, dagokion espedientea irekiko du, eta, ez-betetzeen larritasuna aztertutakoan, alkate-udalburuaren bitartez proposatuko dio Tokiko Gobernu Batzarrari azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, hau da, Dirulaguntzen Lege Orokorraren IV. Tituluaren II. atalean jasotako diruzko nahiz diruz bestelako zehapenak, dirulaguntzak itzultzeko beharraz gainerakoak. Larritasunaren arabera, zehapena jaso izanak dirulaguntza osoa itzultzeko beharra ekar dezake, aipatutako legearen 59. Artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

La Comisión de Valoración, previa apertura del oportuno expediente en el que, en todo caso, se dará audiencia a la entidad beneficiaria, y tras la oportuna valoración de la gravedad de los incumplimientos, propondrá a la Junta de Gobierno Local, a través de la Alcaldesa-presidenta las sanciones tanto pecuniarias como no pecuniarias recogidas en Título IV, Capítulo II de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y que son independientes de la obligación de reintegro de las subvenciones. La imposición de una sanción podrá conllevar, de acuerdo a su gravedad, el reintegro total de la subvención, de acuerdo con los artículos 59 y siguientes de la Ley.

Deialdi honetan jaso diren baina Dirulaguntzen Legean edota Dirulaguntzen ordenantzan ageri ez diren betekizunak betetzen ez badira, % 5ean murriztuko da emandako dirulaguntza bete gabeko betekizun bakoitzeko.

En caso de incumplimiento de requisitos exigidos por esta convocatoria, pero no regulados por la Ley de Subvenciones o su Ordenanza Reguladora se reducirá un 5 por ciento la subvención concedida por cada requisito incumplido.

Elkarte onuradunen pertsona administratzaileak edo ordezkariak izango dira jasotako zenbatekoak zein berandutze-interesak itzultzeko betebeharraren erantzule subsidiarioak.

Serán responsables subsidiarios de la obligación de reintegrar las cantidades percibidas, más el interés de demora, los administradores o representantes legales de las asociaciones beneficiarias.

**HAMASEIGARRENA. Publikotasuna**

Dirulaguntzen Lege orokorrari jarraikiz, deialdi hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da. Aurrekoaz gain, udaletxeko iragarkien taulan eta udal-komunikazioak egiteko gainerako hedabideetan ere argitaratuko da.

**DECIMOSEXTO. Publicidad**

De acuerdo con lo dispuesto en la Ley General de Subvenciones, la presente convocatoria será publicada en la Base de Datos Nacional de Subvenciones. Además de lo anterior, se procederá a su publicación en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y demás medios ordinarios de comunicación municipal.

**Bozketaren emaitzak:**

**-Aldeko botoak:**

**EHBILDU (2): Ainize Gastaka Martínez, Nagore Gomara Picaza.**

**EAJ-PNV (1): Ander Larrínaga Saiz.**

**OMNIA (1): Jakinda Artaraz Martín.**

**Resultado de la votación:**

**-Votos a favor:**

**EHBILDU (2): Ainize Gastaka Martínez, Nagore Gomara Picaza.**

**EAJ-PNV (1): Ander Larrínaga Saiz.**

**OMNIA (1): Jakinda Artaraz Martín.**

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/laudio/validacionDoc?entidad=LAUDIO
S0144708b00505180400 7ea24f06093au

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

Eta jasota uzteko eta dagozkion ondoreak izan ditzan, hau ematen dut.

Elektronikoki izenpetutako dokumentua

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, doy la presente.

Documento firmado electrónicamente

| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| MARIA ARANZAZU LILI SALAZAR | Idazkaria Nagusia / Secretaria General | 05/06/2026 10:17 |
| AINIZE GASTAKA MARTINEZ | Alkate-Udalburua / Alcaldesa-Presidenta | 05/06/2026 12:46 |